

Kanalak

→**BANAKETA:**

Gure produktua kontsumitzaileei iristeko modua batez be on-line izango da. Gure aplikazioa Google Play, App Store, Play Store-ren bidez lortu ahal izango da, guztiz doain. Bakarrik ordaindu behar izango da premium-a nahi izatekotan. Gure aplikazioaren bidez informazio desbardinak ahilegatuko jake, notifikazio formatuan, adibidez hileko gastuak eta zozketak dagozalaren abisua.

On-linez aparte, denda fisikotan ordaintzerako orduan gure aplikazioa erabilteko aukera agertuko da, beraz, kontsumitzaileek erraz hautatu ahal izango dabe. Modu honetan euren erosketen informazio guztia euren mobikorretara ahilegatuko da, ticket digital guztiak bilduta eta antolatuta eukinda. Gainera, edozein personak denda baten erositako produktua ordaintzerakoan gure aplikazioaren aukera ikusiko dau, ticketa zelan nahi daben aukeren artean. Modu horretan, bisibilidade handia eukiko dogu eta aplikazioa ez daukiezan personak jakin-mina euki ahal dabe eta gutaz informazioa bilatu.

Merkatarien elkarteek denda txiki askok gu ezagutzea eta gure sistema eukitea egingo dabe, beraz, gure produktua erabiltzaileei iristeko modua euren bitartez izango da horrelako dendakaz.

Dendatako saltzaileek, bezeroei aplikazioa nola erabili behar daben erakutsiko deusie eta kontsumitzaileek euren galdera desbardinak argitzeko aukera izango dabe.

→**KOMUNIKAZINOA:** modu originalean komunikatuko gara bezeroakaz, personak erakartzen laguntzen dauala uste dogulako. Gainera, bisualki eta ulertzeko era erraz baten irudikatuko dogu informazioa. Sare sozial desbardinak erabiliko doguz, baita dendak be:

- **Instagram:** Instagramen, post-ak (argazkiak, bideoak eta historiak) igoko doguz aplikazioari buruzko informazioa zehazten eta azaltzen. Horrez gain, jentek daukazan galderei erantzungo dogu. Sare sozial honen bidez nerabe eta gazteagoak diran personei batez be, baita beste adinatako sare sozialak kontrolatzen eta euren egunerokoan erabiltzen dabezan personentzat be, bideratuko dogu informazioa.
- **Facebook:** Facebook-tik, barriz, jende nagusiagoari helduko gara, helduen artean gehiago erabiltzen da eta. Bertan instagram erabiliko dogun modura izango da. Gure sistema modu argi baten azaltzeaz gain, galdera guztiak argituz. Hobeto ulertzeko, bertan aplikazioari buruzko bideoak igoko doguz, idea zertan datzan, nola erabili, zergaitik dan ona eta ze alderditan hobetzen dauan ingurunean etab. modu originalean azalduz.
- **Twitter:** Twitter-eko erabiltzaileak gure aplikazioari buruz jakiteko publikazio desbardinak azalpen zabalekaz igoko doguz.
- **Tiktok:** sare sozial honen bidez gu grabatuko gara azalpen gehiago emoten eta aplikazioa zelan dan erakutsiko dogu bideo animatu, erakargarri, bisual eta originalak igoten. Ahalik eta bideo gehiago egiten saiatuko gara aplikazio honetan, zenbat eta gehiago egin orduan eta posibilidade gehiago baten bat birala egiteko eta horrela persona gehiagori iritsiko da gure produktua.
- **Dendak:** gure sistemari buruzko kartelak (publizidadeak) egongo dira dendatan. Gure barri emongo dabe eta dendariak guri buruz jakingo dabe edozein zalantza izatekotan azaldu ahal izateko kontsumitzaileei.